

Ostirala, 2013/08/23

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2013

abuztua

22

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



ERGOBIKO FESTAK

Lau eguneko festa Ergobin, ume, sagardo, dema eta krosak markatuta

Festak gaur hasiko dira, 17:00etan, auzoko elkarte gosetienak botako duen txupinazoarekin. Astelehena bitartean izango dute Ergobiko bizilagunek eta gerturatu nahi duten guztiek, disfrutatzeke aukera.

2013/08/23 - Ostirala

ergobiko festek badute berezitasun bat: egun guztiek dutela izaera, desberdin egiten duten zerbait. gaur arratsaldean hasiko dira, 17:00etan ergobiko ereserkia abestuz, txalapartaren doinuek lagunduta; bertan izango dira gainera, aska, ondasun kaxa eta kupela. txupinazoa berriz, auzoko elkarte gosetienak botako du, eta handik aurrera, astelehena bitartean izango da festa giroan murgiltzeko aukera.

umeen eguna, gaurkoa

umeak izango dira protagonista festetako aurreneko egun honetan. txupinazoa lehertu bezain pronto, 17:30ak aldera, puzgarritz beteko dute plaza txikientzat. bestelako jolasak eta opariak ere, ez dira faltako. eta iluntzean, txokolatea eta txurroak izango dituzte aukeran, sabela bete-bete egiteko. helduentzako festa hasiko da segidan: 20:00etan asteleheneko idi demarako zaldi eta idiak pisatuko dituzte. ondoren, oilasko jatean elkartuko dira auzotarrak. eta gauerdarako gizon proba antolatu dute: auzoko mutil taldea orioko heldu taldearen kontra ariko da. 900 kiloko harriarekin izango dute lehia eta helburua, zeinek plaza gehiago egin. festak goizeko ordu txikiak arte izango du segida, dj bullek jarritako musikak lagunduta.

herri krosa eta beste hainbat ekitaldi, bihar

jendetza erakartzen du urtero ergobiko herri krosak. bihar jokatu da, goizeko 10:30etan, vigarren edizioa. izena aldeztu aurretik eman ez dutenek irteeran bertan izango dute aukera, 08:30etatik 09:30etara. txipak ere, ordu berean banatu dituzte. eguneko beste ekitaldiekin jarraituta, 12:00etan antzinako gizakiek sua eta ehiza nola egiten zuten erakutsiko dute. ondoren, bazkaltzera elkartuko dira, bixente soinu-jolearen erritmora. arratsaldean umeentzako kantu eta jolasak antolatu dituzte, urtxintxako kideekin. gauerdarako ordu erdiren faltan zezen suzkoak mugiaraziko ditu bertaratutakoak. eta festarekin jarraitu nahi duenak, musika

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



jaialdia izango du danba taldearen eskutik.

sagardoa protagonista, etzi

goizeko 11:00etan auzoko hildakoen aldeko mezarekin hasiko dute eguna ergobiko bizilagunek. baina eguna bera, bi ekitaldik markatuko dute: 11:30etan, 52garren sagardo lehiaketa antolatu dute; 20 sagardogileren sagardoak izango dira aukeran, eta edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan, baldintza bakarra, sagardoa gogoko izatea. eta bestea, 18:00etan hasiko den harri jasotze erakustaldia. harri txikien harrijasotzaile onenak izango dira aurrez aurre, 104 kiloko harri baldarrarekin: izeta ii, irigoien, izeta i, ostolaza, izeta iii, telleria eta izeta iv. kostilla entsaladarekin izango da afaltzeko, 21:00etatik aurrera, plazan. eta ondoren, zaldi proba: hernaniko imanor paollaren zaldia eta asteasuko jose antonio arrutirena, zein baino zein, 900 kiloko harriarekin.

idi dema, astelehenean

astelehenean, festetako azken egunean, ergobira jende gehien erakartzen duen idi dema jokatu da. aurtan bi txandatan, goiz eta arratsalde. telleria, matxain, izeta eta arzadunen idiekin izango da dema; birena 12:00etan eta beste biera 18:00etan. tartean bazkaltzera elkartuko dira guztiak, 14:30etan. eta arratsaldeko saioaren aurretik txarangak girotuko du plaza. eguna eta festak bukatzeko eragin stacek lagunduta, auzotar guztiek parte hartuko duten ikuskizuna antolatu dute.

gaur, umeen eguna

17:00, festen hasiera, ergobiko ereserkia abestuz. txupinazoa auzoko elkarte gosetienaren eskutik.
17:30, ume jolasak.
19:00, txokolate eta txurroak haurrentzako.
20:00, demetan parte hartuko duten idi eta zaldien pisaketa
21:30, oilasko jatea
23:30, zezen suzkoa
00:00, gizon proba. auzoko mutil taldea orioko heldu taldearen kontra. 900 kiloko harriarekin, 20 minutuan zeinek plaza gehiago egin.
01:30, dj bullekin musika

bihar, herri krosa

10:30, vi kross herrikoia (xi bernardo arzallusen oroimena)
12:00, antzinako gizakien bizimodu erakustaldia. sua eta ehiza nola egiten zuten erakutsiko dute.
14:30, bazkari herrikoia. bixente soinujoia.
19:00, haurrentzako kantu eta jolasak plazan, urtxintxarekin.
23:30, zezen suzkoa plazan
00:00, musika jaialdia danba taldearen eskutik.

igandea, sagardo eguna

11:00, meza nagusia astigarragako elizan, auzoko hildakoen oroimenez.
11:30, lii sagardo lehiaketa.
18:00, herri kirolak. harri txikien harrijasotzaile onenen arteko txapelketa.
21:00, afaria plazako karpan. kostilla entsaladarekin.
23:30, zaldi proba paolla eta arrutiren artean.

astelehena, idi dema

12:00, xlix gran premio ergobia idi proba. telleria, matxain, izeta eta arzadun. lehenengo txandan, bi partehartzaile izango dira.
14:30, bazkari ofiziala.
17:00, txaranga, plazan
18:00, idi proben bigarren txanda
00:00, auzotarren ikuskizun paregabea, jaiei amaiera emateko.



**Axeri
bila 2013**
klik hemen



**Liburua
erosteko,**
klik hemen



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen